



COMPRENSIÓN DE TEXTOS ESCRITOS

DATOS

Apellidos:

Nombre:

DNI / NIE:

Señale lo que corresponda:

Enseñanza LIBRE / OFICIAL

Grupo / Profesor:

INSTRUCCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE LA ACTIVIDAD

- Duración: **50 minutos**.
- Apague su **teléfono móvil**.
- Escriba sólo con **bolígrafo azul o negro**.
- No olvide realizar **todas** las tareas.
- Escriba sus respuestas en **la hoja de respuestas (reverso de esta página)**.
- Al finalizar, entregue **todas las hojas** utilizadas.

PUNTUACIÓN TOTAL: /20



HOJA DE RESPUESTAS

TAREA 1 – *Bederatzi gazte zortzi egunez euskara hutsean bizitzen saiatuko dira.*
Txertatu beheko hitzak hutsuneetan. Bi hitz sobera daude.

7 item x 1 puntu

...../7 puntu.

0	1	2	3	4	5	6	7
D							
√							

TAREA 2 – *Ez dugu enpatiarik naturarekiko.*

Iñaki Larreari egindako elkarrizketa daukazu.

Elkartu galderak eta erantzunak. Bi erantzun sobera daude. 12 item x 0,5

..... / 6 puntu.

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
K												
√												



TAREA 3 – Bizitza bat.

Amagoia Mujikaren testua irakurri eta esaten direnak Egia ala Gezurra diren adierazi.

7 item x 1 puntu.

...../7 puntu.

		E/G	
0	<i>Istorio hau Bilboko Alde Zaharrear gertatzen da.</i>	G	√
1	Inoiz baino turista gehiago ikusten dira kaleetan zehar.		
2	Eskaleak mespretxagarriak gertatzen dira askorentzat.		
3	Neska-mutil pare bat lo daude Konstituzio plazan.		
4	Argi dago adingabeak direla.		
5	Mutilak tristuraz eta lotsaz begiratzen du.		
6	Aurreko bizitzako hizkuntza, ohitura... utziak ditu.		
7	Erraza egiten zaio bizitza eraikitzen lagunduko dioten pertsonak aurkitzea		

BEDERATZI GAZTE ZORTZI EGUNEZ EUSKARA HUTSEAN BIZITZEN SAIATUKO DIRA.

ARGIA 2020-11-09 (Moldatua)

Lutxo Egia artistak 2015ean egindako ariketa errepikatu nahi dute. Azaroaren 12tik 19ra euskara baino ez dute hitz egingo bederatzi gazteek. Euskaraldiaren bezperatan egingo dute Gaztealdia izeneko ariketa. Helburu nagusia gazteak aktibatu eta euskara ...**0**..... hautua egitera animatzea da. Gazteak euskalgintzak bultzatutako ekimenetan parte ...**1**..... gonbidatu dituzte: “Parte hartu, ez ekimenak ondo atera daitezten, euskarak aurrerapausoak eman ditzan baizik”. Euskaraldian *ahobizi* rolean parte hartzera gonbidatu dituzte gazteak.

Zortzi egunez euskara ...**2**..... bizitzeko ariketa egingo dute eta badakite euskaraz bizitzeko dauden oztopoak azalerratu direla egun horietan. Alabaina, gazteon helburua ... **3**..... azalerratea baino gazteen kontzientziak piztea da eta gazteek euskararen erabilerraren aldeko hautua egitea.

Zabandu duten prentsa-oharrak dio gazteok ...**4**..... propioz hitz egin nahi dutela berriek euskararekin duten loturaz. Hala diote: “Euskalgintza Euskaraldia eta Korrika bezalako herri ...**5**..... antolatzerako gai den arren, kaleetan eta belaunaldi berrien artean ez da euskarari lehengo bultzada emateko energiarik sumatzen. Gazteok, orain arteko ...**6**..... politiken eta euskalgintzak egindako hipotesi eta apustuen fruitu garenok, ez ditugu espektatibak bete”.

Ez dakite bederatzi gazteek euskara hutsean bizitzea lortuko duten, baina helburua argia da: Euskararen erabilera determinatzen duten faktoreak identifikatzea eta ...**7**..... . Zentzu horretan bi gako azpimarratu dituzte.

- A. ahots
- B. aldarrikatu
- C. ekimenak

- D. erabiltzeko**
- E. hartzera
- F. hizkuntza

- G. hutsean
- H. ikustaraztea
- I. inguru
- J. oztopoak

«EZ DUGU ENPATIARIK NATURAREKIKO»

Iñaki Larrea Argazkilaria

Bere pasio kutunenak liburu batean bildu ditu Larreak: argazkilaritza eta natura. Irudi liburu bat sortu du, negu sasoiari Pirinioetan ateratako argazki sortarekin. Sarrio emea da protagonista nagusia.

Uxue Rey Gorraiz Iruñea
BERRIA 2020 -11-03 (Moldatua)

0. Zergatik erabaki zenuen lan hau egitea?

1. Sarrio emea du protagonista liburuak. Zergatik?
2. Neguan eginak dira argazkiak, tenperaturak oso hotzak diren garaian.
Oso gogorra izan al da?
3. Sarrioari argazkiak ateratzeko, zer garrantzi du une egokian eta behar den tokian egoteak?
4. Nola deskribatuko zenuke liburuak atzean duen lana?
5. Zer, adibidez?
6. Zu zeu arduratu zara liburuaren edizioaz. Abantailak ikusi zenituen aukera horretan?
7. Nola erantzun zuen jendeak?
8. Zer eragin nahi duzu ikuslearengan?
9. Premia handia dago horretarako?
10. Zu lanari esker ohartu zara?
11. Zure lanek ingurune naturalak dituzte beti agertoki. Zergatik?
12. Beste proiekturik buruan?

- A. Bai. Alpinista naiz, eta, beraz, laster ohitu nintzen muturreko tenperaturetara.
- B. Animalia liluragarria da, eta ingurune zoragarri batean bizi da, Pirinioetan. Gainera, interesgarria iruditu zitzaidan emeengan zentratzea, kontzeptua feminizatzeke.
- C. Argiketaria ere banaiz, eta esaterako, lan egiteari utzi behar izan diot neguan, bi urtez.
- D. Gustatuko litzaidake zimiko baten modukoa izatea. Nahi dut jendeak ikustea animaliek ere gauza asko sentitzen dituztela, enpatizatu dezaten pertsonak ez direnekin ere.
- E. Hasieran, poliki. Denboraren poderioz, ordea, kontua hobetzen hasi zen, eta itxialdiari esker errazagoa izan zen jende gehiagorengana iristea. Jendearen babesik gabe ezinezkoa litzateke gaur eskuartean edukitzea.
- F. Hein batean, bai. Proiektuan ikus daitezkeen argazkiak egiteko, ordu asko eman ditut animaliangandik hurbil. Haien talde bereko sentitu naiz kasik, eta lagundu dit.
- G. Izugarritzkoa. Ez dugu naturarekiko enpatiarik. Zementu gainean baizik ibiltzen ez den gizarte artifisial bat sortu dugu, eta, oro har, ahazten zaigu zein dugun jatorria.
- H. Naturak guztiz maiteminduta nauka. Mendi puntara igo, eta, zer dakit nik, handik ilunabarra ikusteak sekulako emozioak sentiarazten dizkit.
- I. Nire ustez, argia da inportanteena argazkian, horrek sortzen baitu magia, eta horrek ahalbidetzen du erliebea ederrago agertzea. Ongi aukeratu behar da kokalekua; ezinbestekoa da oso goiz altxatzea eta gauzei aurrea hartzea.
- J. Oraingo, ez. Alpinista gisa, esango nuke gailurrera iritsi naizela lan honekin, eta orain jaistea tokatzen zaidala.
- K. **Premia batek bultzatu nau proiektu hau sortzera. Argazkilaritzan trebatuz joan ahala, ikusi nuen ordua zela biziki gustatzen zaizkidan gauzak konbinatuta lan bat osatzeko.**
- L. Hainbat egun eman genituen hondartza batean atsedean hartzen beste inolako ardurarik gabe.
- M. Proiektu honek osagai asko ditu, baina hiru nabarmenduko nituzke: pasioa, ilusioa eta ergelkeria puntu bat. Bi urtean, gauza asko alboratu ditut lan hau aurrera ateratzeko.
- N. Tira, pixkanaka hartu nuen erabakia. Zalantza asko izan nituen, baita proiektuaren inguruan ere. Denboraren poderioz, baina, ikusi nuen ideia ez zela burukeria hutsa, eta pentsatu nuen merezi zuela saiatzeta.
- O. Ez, ezinezkoa egin zitzaidan berora ohitzea.

BIZITZA BAT

Amagoia Mujika Tolaretxipi

@mmuxika

BERRIA 2020-12-20

Donostiako Parte Zaharra eguerdian. Nola hustu den turistarik ez dagoenetik. Garai bateko jendetzaren artean oharkabeago igarotzen zirelako edo, inoiz baino eskale gehiago dagoela iruditu zaio hiriburura aspaldian joan ez denari. Penagarria ere egin zaio zein ikusezin diren haien aurretik igarotzen direnentzat, eta zenbateraino mespretxagarri askorentzat. Mutil gazte pare bat daude Konstituzio plazako arkupeetan lo zakuaren babesean, eta haietako bat altxa egin da dirua eskatzera, arratsaldearekin jende gehixeago mugitzen ari dela ikusita. Adingabea ez bada, hortxe-hortxe igaroa izango du heldutzat jotzen den adinaren langa. Begi handi eta ederrek ezkutatu ezin duten tristuraz eta lotsaz begiratu du, hitzik esan gabe. Iritsi berria dirudi. Migrazioaren dolua gainditu gabea da behintzat, agerikoa denez. Galdera asko sortu zaizkio begi haiei begiz eutsi ezin dienari, baina ez dio ezer galdetu eta aurrera jarraitu du bere bizitzarekin. Atzean utzi duenak, ordea, ez du bizitzarik. Berria eraiki beharra dauka, utziak baititu aurreko bizitzan lagunak eta senideak; hizkuntza, ohitura eta bizitzeko modua. Dena zaio arrotz, eta zaila egiten zaio bizitza eraikitzen lagunduko dioten pertsonak topatzea mespretxuzko begiraden eta jarreraren artean. Begi triste horiei eutsi, eta aurreiritzirik gabe begiratzen ikasi behar luke bizitza bat duenak.

COMPRESIÓN DE TEXTOS ESCRITOS B1

HOJA DE RESPUESTAS

TAREA 1 – Bederatzi gazte zortzi egunez euskara hutsean bizitzen saiatuko dira.

Txertatu beheko hitzak hutsuneetan. Bi hitz sobera daude. 7 item x 1 puntu

..... /7 puntu.

0	1	2	3	4	5	6	7
D	E	G	J	A	C	F	H
√							

SOBERA: B, I

TAREA 2 – Ez dugu enpatiarik naturarekiko.

Iñaki Larreari egindako elkarrizketa daukazu.

Elkartu galderak eta erantzunak. Bi erantzun sobera daude. 12 item x 0,5

..... / 6 puntu.

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
K	B	A	I	M	C	N	E	D	G	F	H	J
√												

SOBERA: L, O

TAREA 3 – Bizitza bat.

Amagoia Mujikaren testua irakurri eta esaten direnak Egia ala Gezurra diren adierazi.

7 item x 1 puntu.

...../7 puntu.

		E/G	
0	<i>Istoria hau Bilboko Alde Zaharrean gertatzen da.</i>	G	√
1	Inoiz baino turista gehiago ikusten dira kaleetan zehar.	G	
2	Eskaleak mespretxagarriak gertatzen dira askorentzat.	E	
3	Neska-mutil pare bat lo daude Konstituzio plazan.	G	
4	Argi dago adingabeak direla.	G	
5	Mutilak tristuraz eta lotsaz begiratzen du.	E	
6	Aurreko bizitzako hizkuntza, ohitura... utziak ditu.	E	
7	Erraza egiten zaio bizitza eraikitzen lagunduko dioten pertsonak aurkitzea	G	



COMPRENSIÓN DE TEXTOS ORALES

PRUEBA DE CERTIFICACIÓN

DATOS

Apellidos:

Nombre:

DNI / NIE:

Señale lo que corresponda:

Enseñanza LIBRE / OFICIAL

Grupo / Profesor:

INSTRUCCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE LA ACTIVIDAD

- Duración: **35 minutos**.
- Apague su **teléfono móvil**.
- Escriba con **bolígrafo azul o negro**.
- Cada tarea se escuchará **dos veces**.
- Para cada una, el procedimiento será el siguiente:
 - **dos minutos** para leer el enunciado y la tarea
 - **primera escucha** del documento
 - **un minuto** para responder
 - **segunda escucha** del documento
 - **dos minutos** para revisar las respuestas y anotarlas en la **hoja de respuestas** (reverso de esta página)
- Al finalizar entregue **todas las hojas** utilizadas.

PUNTUACIÓN TOTAL: /20



TAREA 1 Elkanoren bizitzaren inguruko testu bat entzungo duzu. Aukeratu erantzun zuzena aukeren artean eta taulan idatzi adibidean bezala./7 puntu
7 item x 1 puntu = 7 puntu	

0. *Juan Sebastianek nori azaldu zien zeinu-sistema?*
 - a) Agintariei.
 - b) Bere gizonei.**
 - c) Kapitainei.
1. Nola erantzungo diete ontzi nagusiko tiroei:
 - a) Oihalak eraginez.
 - b) Oihu eginez.
 - c) Tiro eginez.
2. Zerez egindako kandelak zeramatzaten?
 - a) Argizariz egindakoak.
 - b) Buztinez egindakoak.
 - c) Olioiz egindakoak.
3. Noiz hasi ziren lehen afaria prestatzen?
 - a) Egun argi egin zenean.
 - b) Eguzkiaren azken izpien ondoren.
 - c) Elkanok agindua eman zienean.
4. Zein da itsasontzian duten arriskurik handiena?
 - a) Elkarrenganako mesfidantza.
 - b) Itsaso zabalean erortzea.
 - c) Sugarrek sortu dezaketen sua.
5. Zertarako dira otoitz ondorengo kanpaiak?
 - a) Atsedeen hartzerako joateko.
 - b) Guztiak lanean hasteko.
 - c) Sukaldeko ontziak garbitzeko.
6. Ze zigor izango du lapurtzen duenak?
 - a) Kapitainaren aginduak jarraituz, urkatua izango da.
 - b) Soldataren erdia galduko du eta zepoa jarriko zaio.
 - c) Zepoa jarrita egingo du bidaia kapitainak hala agintzen badu.
7. Ze zigor jasoko du zaintzan egonda lo hartzen duenak?
 - a) Hiru aldiz sartuko dute uretan masta nagusitik zintzilik.
 - b) Masta nagusian urkatuko dute.
 - c) Zuzenean itsasora botako dute.

0	1	2	3	4	5	6	7
B							
√							



TAREA 2 Euskadi Irratiko elkarrizketa bat entzungo duzu.

Ondorengo baieztapenak Egia ala Gezurra diren esan behar duzu. 7 x 1 = 7 puntu

...../7 puntu

		E/G	
0	Emakumeei eta musikari buruzko elkarrizketak eta aldarrikapenak izenburua duen mahai ingurua izango da Tolosan.	E	√
1	Emakumeeek beti daukate gizonezkoek baino gauza gehiago aldarrikatzeko.		
2	Olatzen iritziz, euskal musikaren panoraman ezberdintasun handia dago gizon eta emakumeen artean.		
3	Pandemiaren ondorioz musikariak gaizki pasatzen ari dira.		
4	Krisi egoeran, prekarioenak ez dute besteek baino gehiago sufritzen.		
5	Gaur arratsaldeko saioan, hainbat gizon eta emakumek parte hartuko dute.		
6	Gaur arratsaldeko mahai inguruan esango dutena zehatz-mehatz prestatuta daukate.		
7	Gaur Olatz Salbadorren urtebetetze eguna da.		



TAREA 3 Iragarkiak. Euskadi Irratiko iragarki batzuk entzungo dituzu. Elkartu iragarkiko enpresak eta hauei buruz esaten direnak. 12 x 0,5 = 6 puntu/6 puntu.
---	-----------------------

- | | |
|--|--|
| <p>1. Euskaltel.</p> <p>2. Euskadi irratia.</p> <p>3. ONCE.</p> <p>4. Hizkuntza-eskola.</p> <p>5. Loraldi festibala.</p> | <p>A. 0 euroan eskaintza berezia.</p> <p>B. 17 aukera ezberdin dituzte.</p> <p>C. 50 urte baino gehiagoko esperientzia.</p> <p>D. Adinez nagusientzat bakarrik dira.</p> <p>E. Bi aukera ditu eskaintzaz baliatzeko:
telefonoa eta web orria.</p> <p>F. Familientzako deskontu bereziak.</p> <p>G. Gertuko paisaiak bizi badituzu.</p> <p>H. Informazio eta sarrerak web orrialde
batean soilik.</p> <p>I. Oso eskaintza ona dauka.</p> <p>J. Ostegunak egun garrantzitsuak dira.</p> <p>K. Produktu berria daukate.</p> <p>L. Udazkenean eskaintza asko dituzte.</p> <p>M. Urtebetetze egunari esker saria
lortu dute.</p> |
|--|--|

EUSKALTEL	EUSKADI IRRATIA	ONCE	HIZKUNTZA ESKOLA	LORALDI FESTIBALA
A				

TAREA 1 Elkanoren bizitzaren inguruko testu bat entzungo duzu. Aukeratu erantzun zuzena aukeren artean eta taulan idatzi adibidean bezala.
7 item x 1 puntu = 7 puntu

...../7 puntu

0	1	2	3	4	5	6	7
B	C	A	B	C	A	C	A
√							

TAREA 2 Euskadi Irratiko elkarrizketa bat entzungo duzu.
Ondorengo baieztapenak Egia ala Gezurra diren esan behar duzu. 7 x 1 = 7 puntu

...../7 puntu

		E/G	
0	Emakumeei eta musikari buruzko elkarrizketak eta aldarrikapenak izenburua duen mahai ingurua izango da Tolosan.	E	√
1	Emakumeek beti daukate gizonezkoek baino gauza gehiago aldarrikatze.	E	
2	Olatzen iritziz, euskal musikaren panoraman ezberdintasun handia dago gizon eta emakumeen artean.	G	
3	Pandemiaren ondorioz musikariak gaizki pasatzen ari dira.	E	
4	Krisi egoeran, prekarioen ez dute besteek baino gehiago sufritzen.	G	
5	Gaur arratsaldeko saioan, hainbat gizon eta emakumek parte hartuko dute.	G	
6	Gaur arratsaldeko mahai inguruan esango dutena zehatz-mehatz prestatuta daukate.	G	
7	Gaur Olatz Salbadorren urtebetetze eguna da.	E	

TAREA 3 Iragarkiak. Euskadi Irratiko iragarki batzuk entzungo dituzu.

Elkartu iragarkiko enpresak eta hauei buruz esaten direnak. 12 x 0,5 = 6 puntu

...../6 puntu.

1. Euskaltel.

2. Euskadi irratia.

3. ONCE.

4. Hizkuntza-eskola.

5. Loraldi festibala.

A. 0 euroan eskaintza berezia.

B. 17 aukera ezberdin dituzte.

C. 50 urte baino gehiagoko esperientzia.

D. Adinez nagusientzat bakarrik dira.

E. Bi aukera ditu eskaintzaz baliatzeko:
telefonoa eta web orria.

F. Familientzako deskontu bereziak.

G. Gertuko paisaiak bizi badituzu.

H. Informazio eta sarrerak web orrialde
batean soilik.

I. Oso eskaintza ona dauka.

J. Ostegunak egun garrantzitsuak dira.

K. Produktu berria daukate.

L. Udazkenean eskaintza asko dituzte.

M. Urtebetetze egunari esker saria
lortu dute.

EUSKALTEL	EUSKADI IRRATIA	ONCE	HIZKUNTZA ESKOLA	LORALDI FESTIBALA
A	G	D	B	H
E		J	C	L
I		K	F	
		M		



MEDIACIÓN DE TEXTOS ESCRITOS

PRUEBA DE CERTIFICACIÓN

DATOS

Apellidos:

Nombre:

DNI / NIE:

Señale lo que corresponda:

Enseñanza LIBRE / OFICIAL

Grupo / Profesor:

INSTRUCCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE LA ACTIVIDAD

- Duración: **25 minutos**.
- Apague su **teléfono móvil**.
- Escriba con **bolígrafo azul o negro**.
- Recuerde: **si no cumple la tarea**, la calificación será 0.
- Escriba sus respuestas en **la hoja de respuestas**.
- Al finalizar, entregue **todas las hojas** utilizadas.

PUNTUACIÓN MEDTE: /10

PUNTUACIÓN MEDTO: /10

PUNTUACIÓN TOTAL MEDIACIÓN: /20
--



MEDIAZIOA. Zure lagun batek bigarren eskuko auto bat erosi nahi du. Adierazi iezaiozu ze gauza izan behar dituen kontuan autoarekin arazorik ez izateko.

100 hitz.

..... /10 puntu.



MEDIACION B1

Explicar que cosas hay que tener en cuenta para comprar un coche de segunda mano con total garantía.



PRODUCCIÓN Y COPRODUCCIÓN DE TEXTOS ESCRITOS

DATOS

Apellidos:

Nombre:

DNI / NIE:

Señale lo que corresponda:

Enseñanza **LIBRE** / **OFICIAL**

Grupo / Profesor:

INSTRUCCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE LA ACTIVIDAD

- Duración: **60 minutos**
- Apague su **teléfono móvil**.
- Escriba sólo con **bolígrafo azul o negro**.
- No olvide realizar **las dos tareas**.
- Recuerde: **si no cumple la tarea**, la calificación será 0.
- Escriba sus respuestas en **la hoja de respuestas (reverso de esta página)**.
- Al finalizar, entregue **todas las hojas** utilizadas.

PUNTUACIÓN TOTAL: /20



TAREA 1	Zure bikotea oso kezkatuta dago zuen seme edo alabak egun osoa logelan pasatzen duelako. Azaldu mezu elektronikoa batean ze bururatu zaizun logelatik atera eta kirol gehiago egiteko. 130 hitz /10 puntu
----------------	--	------------------------

TAREA 2	Lagun batek gutun bat bidali dizu. Erantzun zure lagunaren gutunari. 80 hitz /10 puntu
----------------	---	------------------------

Kaixo lagun:

Iazko udan auto-karabana batekin Europan zehar ibili zinela esan zenidan. Aurten, guk ere auto-karabana bat alokatu eta Europa ezagutzeko asmoa daukagu. Esango didazu, mesedez, nolako auto-karabana alokatzea komeni zaidan (emaztea eta biok joango gara), ze bisitatu dezakegun, nondik joan behar dugun...

Besterik ez, jaso ezazu besarkada handi bat.

Mikel

B1

Tarea 1

Expresar las razones del comportamiento de vuestro hijo/hija.

Ofrecer información de las medidas a tomar para que cambie la situación.

Expresar y justificar tu opinión.

Aconsejar y recomendar las medidas a tomar.

Tarea 2

Saludar y despedirse de un amigo.

Dar información a las preguntas que te formula tu amigo.

Expresar y justificar tu opinión acerca de lo que te pregunta tu amigo.

Aconsejar y recomendar: tanto el tipo de vehículo como las rutas a seguir.

Planificar una ruta.



PRUEBA DE CERTIFICACIÓN-BLOQUE B

MEDIACIÓN DE TEXTOS ORALES

Konta iezaiozu zure Irlandako lagunari ezkondu aurretik senar- eta emazte-gaiek lagunekin egiten dituzten ospakizunak. Horretarako, ondoren duzun testua erabil dezakezu.

EZKON AURREKO AGURRAK, ASPALDIKO OHITURA.

Ezkondu aurretik lagun edo senideekin agur-festa egitea nahikoa zabaldua dago gure artean. Ez da ohitura berria, gainera. Festa horien jatorria eta bilakaera aztertu ditugu.

Gure alboan festa-giroan dabilen koadrila bat ikusi eta haien artean bat mozorrotuta badago, askori ideia bera datorkigu burura: desberdin jantzitakoa laster ezkonduko da. Izan ere, ezkon aurreko agurrak egitea gure artean zabaldua dagoen ohitura da. Lagunek eta senitartekoek antolatzen diote festa, eta egun bakarreko, biko edo hiruko planak izaten dira, helburu jakin batekin: ongi pasatzea.

Ohitura horrek gure garaikoa edo modernoa badirudi ere, historiari erreparatzen badiogu antzinako gizarteetan ere antzerakoak bazirela ikusiko dugu. Antzinako Mesopotamian sortu omen ziren ezkon aurreko agurrak. Gaur egun, paintball, tuppersex, sokamuturra, jokoak, upategi bat ezagutzea, bainuetxe batean erlaxatzea...; amaierarik gabeko zerrenda osatuko genuke ezkon aurreko agurretan egin daitezkeen planak zerrendatu beharko bagenu. Logroñon, adibidez, horrelako festak debekatu egingo zituztela esan zuten, jende asko joaten zelako eta festa horiek hiriko lasaitasuna oztopatzen zutelako. Donostian ez da horretarako beharrik: "Kalean ez dago horrelako iskanbilarik eta guk ere ez dugu eztabaida larririk izan gure itsasontzietan antolatutako jaietan".

PRODUCCIÓN DE TEXTOS ORALES (MONÓLOGO)

- GURE ARROPA Ari buruz hitz egin behar duzu. Arropa erostean moda jarraitzen duzun, denda txikietan ala merkataritza guneetan erosten duzun... kontatu behar diguzu. Arropa gehiegi erabiltzen dugu eta hau kaltegarria da gure ingurugirorako. Zer egin beharko genuke arropa gutxiago erabiltzeko?

COPRODUCCIÓN DE TEXTOS ORALES (DIÁLOGO)

ENUNCIADO CANDIDATO A

- Beganismoa izango dugu eztabaidagai. Begano izatea erabaki zenuen orain dela hainbat urte. Zure ustez haragi kontsumoa gehigizkoa da eta murriztu egin beharko genuke. Defendatu beganismoaren alde onak eta arrazoitu zure argudioak.

ENUNCIADO CANDIDATO B

- Beganismoa izango dugu eztabaidagai. Ez duzu ulertzen begano izatearen onurak eta haragia jaten jarraitzeko asmoa duzu. Begano izatea moda bat dela uste duzu eta ez duzu uste haragia kaltegarria denik. Defendatu zure postura eta arrazoitu zure argudioak.